

Anne Erauskin eta Mirene Moreno, eskubaloiz jokalariek

Mundialean egoteko ilusioz

Imanol Alvarezek zuzentzen duen Espainiako junior selekzioarekin aritu dira berriki Anne Erauskin eta Mirene Moreno eskubaloiz jokalariek. Astebeteko egonaldia egin dute Bejarren (Salamanca) eta Portugalen aurka bi partidu jokatu dituzte. Neurketa biak irabazi ostean, pozik bueltatu dira etxera ermuarrak eta uztailean Hungarian jokatuko den Munduko Txapelketan egotea espero dute.

- Zer moduz joan dira Bejarreko egonaldia eta Portugalen aurkako partiduak?

Anne: Ondo! Aurretik egonda nago Espainiako selekzioarekin eta ezagutzen nuen nolako dinamika duten honelako egonaldiak. Goiz eta arratsaldean entrenatzen dugu, eta nahiz eta atsedena hartu, gogorra egiten da ohituta ez gaudelako. Orain Imanol Alvarez da Espainiako junior taldeko hautatzaile berria eta oso pozik gaude berarekin. Gainera, Mire-

ne ere etorri izana oso pozgarria da!

Mirene: Niretzat lehen aldia da Espainiako selekzioarekin eta oso pozik joan naiz. Annerentzat agian ez da hain gogorra izan, baina niretzat bai. Ermuan arratsaldeetan bakarrik entrenatzeko ohitura daukagu, eta egunean birritan entrenatzea asko igartzen da.

A: Exijentzia ere ezberdina da. Gure taldean egun txarra badaukazu, erlaxatuta egon zaitezke, baina selekzioan ez.

M: Gure buruari ere autoexijentzia handia eskatzen diogu.

- Zer moduz Imanolekin?

A: Hasieran beldur pixkat banuen, ez nekielako nola irtengo zen, baina azkenean oso ondo. Konfiantza ematen dizu Imanolek eta horrek lasaitzen zaitu. Horrela errazagoa da egoerei aurre egitea.

M: Lau urte daramatza gu berarekin Ermuan, beraz, berarekin aritzera ohituta gaude. Behar den gogorra da, baina bestela ez da hain entre-



natzaile zorrotza.

A: Exijitzen du, horrela behar delako. Aurreko hautatzaileak askoz gogorragoak izaten ziren.

M: Taldeko jokalariek eta beste kideak oso jatorrak dira eta dena oso eroso izaten lagundu digute.

- Martxoan Mundialean sartzeko kanporaketak jokatuko dituzue. Nola egingo diezue aurre?

A: Gure taldean lau selekzio gaude eta hiru partidu jokatuko ditugu sailkapena lortzeko. Portugal, Austria eta Hungaria izango dira gure arerioak, eta lehen biak sailkatuko dira. Nik uste dut nahiko talde erraza tokatu zaigula.

M: Portugal izan daiteke talderik arrikutsuena eta bi partidu irabazi diegu berriki, beraz, Mundiale-rako sailkatzea posible

ikusten dugu

- Eta zuek Mundialean aritzeko aukerak ikusten dituzue?

M: Esperantza beti daukazu, baina ikusiko da. Egonalditik pozik bueltatu gara eta Mundialean egotea espero dugu.

A: Guk bertan egoteko dena emango dugu, baina Imanolen erabakia izango da.

Ekhi Velar



Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

DROGETEN

Publizitatea:

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com